


ZAKILIXUT

© Olariagak



Nafarroan behin



INAKI VERGARA

Iruñeko Antzerki Eskolako antzokitik egin zituen irratsaioak atzo Euskadi Irratiak

«NAFARROAKO Antzerki Eskolan gaude, Iruñean, baina telefonoak ez ditugu napartu», erran zuen Babel-eko irratsaioa aurkezle Susana Mujikak. «Beraz, gure lehiaketan parte hartzeko deitu 943-471020 telefonora». Bada, ez zitzaien askorik kostatzen telefonoak ere nafartzea, hirutik zortzira ez baitago alde handirik. Kon-

tua da atzo Euskadi Irratiak Iruñetik emititu zituela, zuzenean, goizeko eta arratsaldeko magazinak, Goizean behin eta Babel. XXI. mendeko Nafarroa nolakoa izanen den jakin nahi zuten.

«Iruñera etortzeko ez dugu arrazoirik behar, baina pare bat aitzakia bagenuen», komentatu zuen Goizean behin irratsaioa zuzen-

Goizean
Behin saioa
Iruñeko
Antzerki
Eskolatik
emititu
zuten.
Mahaian,
aurkezle,
Arantxa
Iturbe ageri
da.

dari Arantxa Iturbek. «Batetik, sanferminak oso gertu daude, eta, bestetik, Hizkuntza Politikako Zuzendaritzarekin Nafarroako Gobernuak hartu duen erabakia komentatzeko momentua zela uste genuen».

Bi irratsaioak eskolako antzokian egin zituzten. «Azken finean, irratia antzerkia da», adierazi zuen Iturbek. «Behar duzu pixka bat aktore lana egin. Oso antzerki magikoa da. Soinuz egiten da, eta bakoitzak nahi duen antzezlan

ikusten du, belarriekin ikusten duelako». Iturbe antzokian gus-tura zegoen, baina, hala ere, estudioa nahiago zuela aitortu zuen. «Babestuago sentitzen gara estudioan. Kanpora ateratzen garenean, ez gaude gure tokian, askoz urduritasun handiagoa dago, eta kontu teknikoa konplikatuagoa da. Baina noiz-behinka ateratzeak ez du kalterik egiten». Horregatik zeuden atzo Iruñean.

Pettik, ahots urratuko kantari beratarrak, eskolako antzokiko iluntasuna ilunago egin zuen, eta Zarrakazteluko Anak, kontrapisu egitearren edo, jota batzuk kantatu zituen euskaraz. Beste gonbidatu nafar anitz ere pasatu zen mikrofonotik. Azkenak, Asisko Urmeneta marrazkilariak, akabera eman zion Goizean behin-eko 2.462. saioari. «XXI. mendean autista izanen naiz», aitortu zuen. Heldu den iraila arte, beraz. Erran bezala, Euskadi Irratiko-ek ez zituzten telefonoak nafar-tu, baina arras irratsaio nafa-rak egin zituzten, arno gorri usaina darien horietakoak. Hala ere, iruindarrek ezin izan zuten arno horren dastatzerik izan, 91.4an, hamarretatik hamabietara, Euskalerrria Irratiko Zokobetailu saioa entzuten baita Iruñerrian. Arratsaldeko Babel saioa behintzat entzun ahal izan zuten, goizekoa baino are nafarragoa oraindik.

Asier Azpilikueta
IRUÑEA



Bertso Hop - Bilintx

Colon Pasealekua, 8
20302 IRUN
Tel.: 943 63 17 26 - Faxe: 943 63 54 89
E-mail: bilintx-bertsohop@jalgi.com



Ramos

Bergara, 6
20005 DONOSTIA
Tel.: 943 42 63 50 - Faxe: 943 42 38 05
E-mail: ramos@jalgi.com

ORAIN DENAK
BATERA INTERNET-EN

megadenda

www.jalgi.com/megadenda

Herriak

Poza lizentziatua, 11
48008 BILBO
Tel.: 94 443 48 07 - Faxe: 94 422 20 83
E-mail: herriak@jalgi.com

Xalem

Baiona hiribidea, 52 / Golem eraikina
31008 IRUÑEA
Tel.: 948 17 55 38 - Faxe: 948 27 79 05
E-mail: xalem@jalgi.com

